

## KARMEL

Hiru-Hilebeteoroko aldizkaria

**Zuzendaria:** Julen Urkiza (Markina)

**Idazle kontseilua:** Luis Baraiazarra, Ana Urkiza,  
Patxi Uribarren, Andoni Olea, Luis Arostegi

**Helbidea:** Karmeldarrak - Markina  
48270 Markina - Bizkaia (Tel. 94-616 6019)

**Harpidetza:** Urteko harpidetza: 1.600 pzta.  
(Europa: 17 dolar; Amerika: 24 dolar)

*Jarri, mesedez, argi eta garbi zeure  
helbidea, guk ipinitakoa ondo  
ez balego.*

Jabe: Euskal Herriko Karmeldarrak  
C/ Manuel Iradier, 2 - Gasteiz  
ISSN: 1132-2357  
Legezko gordailua: BI. 459/68  
Inprimaketa: Itxaropena S.A. Zarautz



Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## KULTURA

### GERO LIBURUA AHALBIDETU ZUEN IRAKURLEAZ

0.- Gauza ezaguna da liburu baten idaztankeraren ezaugarri-rik garrantzitsuenak, plazaratzerakoan izan ditzakeen irakurle-ek eman ohi dizkiotela eskuarki, ezer gutxi egiten baitu idazle-ak litezkeen irakurle horiek gogoan hartu gabe.

Eta topiko moduko honek egungo literaturan inoiz huts egin badezakeen arren, klasikotzat hartzen den literaturan hutsaren hurrengo izango lirateke salbuespenak; are gehiago, liburua pragmatismoaren esparrukoa denean.

Ildo horretatik, autoreak ikusmiran duen irakurle "tipo"-aren arabera ohi da idatzizko zitua. Eta ondorioz, nolakoa ustezko irakurlea, halakoa berbaldia eta obraren taxuketa orokorra bera: planteamendua, mezua, hizkera, irudiak...

Axularren irakurle-aurreikuspenari dagokionez, "Irakurtzaileari" zuzendutako atalean "jakituria"-ren arabera taxutu zuen soslaiak ("letratu handiak" eta "deus eztakitenak" di-relakoen artean zeudenekin osatuak, alegia) erdibideko irakurlearen irudikapena eskainiko luke batik bat. Baina soslai horrek topiko klasikoari zor dionaz aparte, Axularrek bestelako ezaugarriak zituen irakurle euskaldun konkretua zeukan begi-bistan. Hain zuzen ere, pentsatzekoa da berak ardurapean zuen esparru geografikoan sakabanatutako parrokiarioak zituela ikusmiran. Hori horrela, eta *a posteriori* bada ere, *Gero-*

ren irakurketatik antzeman daitezkeen espektatibak ohiko tipologiaren bidetik joango lirateke oro har.

1.- Hemen irakurleaz mintzatzean zentzurik zabalenean hartuko da kontzeptua, hots, liburuaren mezu-hartzaile gisa, irakurle zein irakurritakoaren entzule huts gisara, ezaguna baita irakurketaren kontzeptua garatuz joan dela denboran zehar eta, aldi berean, indibidualizatuz, hau da, norberaren jarduera bihurtuz.

Baina, mendebaldeko Aintzinate klasikoan eta inprenta-kulturaren hasieran ez zen zalantzarik: idazki garrantzitsuak norberak irakur bazitzakeen ere, nagusiki taldean eta ozenki irakurtzeko ziren testuak, entzuleak irakurketa prozesuaren parte garrantzitsu bat zirelarik. Eta gutxienez XVIII. menderarte, jende hori, hots, zitekeen irakurle-entzuleria hori aurrean bailegoan idazten zuten autoreek. Ongok dioenez,

[...]desde la Antigüedad hasta avanzado el siglo XVIII *muchos textos literarios incluso cuando estuvieran por escrito, por lo general estaban destinados a la recitación pública, originalmente llevada a cabo por el autor mismo [...].* El leer en voz alta ante la familia y otros grupos pequeños era común todavía a principios del siglo XX, hasta que la cultura electrónica reunió a tales grupos alrededor de los aparatos de radio y televisión, en lugar de, como se hacía antes, en torno a un miembro del grupo (Ong 1987, 153; gurea da letrakera etzana).

Baiki, praktika hedatu horrek<sup>1</sup> eragin zuzena eta handia izango zuen literatur estiloan, batik bat parametro erretorikotatik gauzatutako literaturarenean, irakurtzeko liburua izateak

<sup>1</sup> Chartierrek oroitarazten duen moduan, bada, "De la diligencia a la taberna, del salón a la academia, del encuentro amistoso a la reunión doméstica, son muchas las circunstancias entre los siglos XVI y XIX en las que *leer en voz alta, para los demás, es un gesto normal, esperado. La lectura no es, por tanto, solamente una figura de lo íntimo o de lo privado; también es cimiento y expresión del vínculo social*" (Chartier 1993, 34; gurea da letrakera etzana).

ez baitu, ezinbestez, modu indibidualizatuan irakurtzekoa dela adierazten, nork berea eta berarentzat bakarrik irakurtzekoa.

Axularren liburuari dagokionez, egia da irakurtzeko liburua dela, nahiz eta pasarte askok eta askok egoki diruditen belarriaren bidez hautemateko (entzuteko, jolas fonetikoak, hotsak eta neurriak dastatzeko, buruz ikasteko...), horretarako propio prestatuak bailiren. Taldean irakurria izateko ere oso aproposa da *Gero*. Are gehiago: hainbat eta hainbat ezaugarri, formula erritmiko eta baliabide ezin balora litezke belarriaren bitartez "irakurriko" ez balira.

2.- Lanbideagatik zegokion eginkizunaren barnean, Axularrek, maiz asko kristautasunetik soilik ez zetozen elementu zenbaitez osatutako erlijiositate bat zuen begien aurrean. Izan ere, lurralde haietan arnasten zen osagai erlijiosoa nolabaiteko mundu majiko eta paganizatu baten inguruan murgiltzen zen, ahaztu gabe, jakina, inguru haietako disidentzia erlijioso kalbinistak erlijiositatearen forma konplexu haietara ekar zitzaizkeen faktoreak.

Oro har, beraz, errealitate hari erantzunez sortu zen *Gero* liburua. Eta lanak espero bezalako fruiturik izango bazuen, Axularrek errealitate hartako protagonista zuzenak ziren gizakien (eta irakurleen) ezaugarriak<sup>2</sup> izan beharko zituen kontutan.

<sup>2</sup> "Está escrito para los vascos de su tiempo. Desde luego que éstos eran cristianos y creyentes. Pero en todo cristiano (claro que en distinto grado y proporción, según sea su entrega a Dios) coexisten como dos hombres: el hombre mundano que desconfía de Dios, que cree más en sí mismo y en los valores de este mundo y de esta vida, que en lo que Dios promete; y existe, por otra parte, el hombre creyente, que posee en su fe la semilla de un hombre nuevo, pero en muchos casos este hombre queda como ahogado por el otro, que se le sobrepone. A este cristiano, bastante carnal y mundano, se dirige, pues, Axular. Con él discute y entabla diálogo, haciéndole ver con razones bastante positivistas y adaptadas a sus alcances, las ventajas del servir a Dios y convertirse, y de hacerlo desde ahora, sin relegar este negocio para luego, para la hora de la muerte, como hacen los más" (Villasante 1974, 30-31).

Alabaina, ez dirudi *Gero*-ren edota urte haietako bestelako liburuen irakurle motaz aparteko berririk dagoenik, ez bada, noski, liburutik bertatik isurtzen den informazioa.

Guztiarekin, badira hainbat ezaugarri irakurle tipoaz mintzatzeko zaizkigunak. Lehenik eta behin, irakurleak euskalduna izan behar du liburua ulertuko badu. Izan ere, euskaldunek ez bestek irakurria izateko jaio zen obra hau. Baina ez edozein irakurle indibidualak irakurtzeko, funtzionamendu soziolinguistiko monolinguea zuen gizatalde bateko irakurleak ("euskaraz baizen etziakiten"-ek) baizik. Liburuaren motibazioa, motorea, tresneria, egilea eta irakurlea, guztiak ziren euskal eremukoak, guztiak konformatuko zuten *Gero*-n agertzen den mundua, mezuaren alderdi erlijiosotik hasita azalean distiratzeko duten hots eta erritmoen muturreraino, eta barneko bestelako elementuetatik iraganda.

Bigarren ezaugarri gisa, liburuaren hartzailer naturalak (zinez irakurrik zuenak, alegia) definizioz behar zuen alfabetatua izan. Mitxelena gogoratzen zuen moduan, "ikasiaz edo erdi ikasiaz izateak gutxienez kondizio bat eskatzen zuen, irakurtzen aski ongi jakitea" (Mitxelena 1981a, 272).

Ez dugu hemen errepikatuko alfabetatzearen bidean Iparraldeko euskaldunei Elizak eskaini zien laguntza -esan beharrik ote dago?- interesatua. Alabaina, ez dago soberan euskal irakurlearen prestakuntza eta formazioan zenbait zutari gogoraztea.

Ahozko tradizioa literatura idatziarekin uztartu zutenen lana eta meritua inolaz ere gutxiesteke (Etxepare, Etxegarai, Logras...), ezaguna da eliza erreformatzaileari egokitu zitzaizola, zituena planteamendu erlijiosoaren ondorioz, kode idatziaren "demokratizazioa"<sup>3</sup>, batik bat Testamentu(ar)en hedapenaren bidez. Lapurdi eta Nafarroa Behereko esparruetan, dena den, Leizarragarena bu-

<sup>3</sup> "Si tomamos Europa como un todo [...] los protestantes, con un grado mayor de formación, contrastaban claramente con los católicos y, todavía más, con los cristianos ortodoxos" (Burke 1991, 104).

ka eta ondoren bilatu beharko da katolikoen arteko alfabetizazio saiaren hasiera. Ohi bezala, Materrek muzin egin zion aurreko tradizio protestanteari eta, idazteari ekiteko arrazoen artean, honako argigarri hau jarri zuen: "ikus dadin halaber nola behar den Euscara esquiribatu eta iracurtu" (Materre, *Dotrina...*, xiii or.).

Bestalde, dakigunagatik, badirudi orduko irakurlegoa -arazo ekonomiko larriegirik ez zuen irakurlegoa, alegia- modu aski automatikoan bihurtu zitekeela liburu-erosle, besteren artean elizgizon ziren liburugileen auctoritas (= derrigortasun morala bilakatzeko zena) delakoak "aholkatzen" zuenagatik. Marinelei, esaterako, garbi asko uzten zien Materrek liburu eskuratzeko premia: "[...] ceren estimatcen dut ez-tela içanen bat-ere iracurtzen daquien marinelic liburu haur içanen eztuenic" (Materre, *Dotrina...*, 328 or.).

Horrezaz guztiaz gainera, *Gero*-ren irakurle tipoaren karakterizazioan luze mintzatu izan da Axularrek "Iracurtçailleari" eskainitako hitzaurrean idatzitakoez: "Eztut liburutto haur, letratu handientçat eguiten. Eta ez choil, deus eztaquitenentçat ere" (19 or.).

Luze mintzatu bai, baina ez beti egokiro<sup>4</sup>. Edonola ere, badirudi Axularri egokitu zitzaion errealitate konkretuarekin bat zetozen hitzak direla horiek, zalantzarik gabe, baina, era berean, berbaldia osatzeko azturek eta arauak bideratuak ere bai. Izan ere, erretorikan maisua zen Zizeron berdintsu mintzatzeko *De Oratore* (II, 6) liburuan<sup>5</sup>: "Kaio Luzilio, gizon jakintsu eta

<sup>4</sup> "Batek baino gehiagok esan izan du eta esaten du, ez dakit idatzi ere ez ote den egin, Axularrek liburu bere elizgizon kideentzat egin zuela, horiek beren prediku eta sermoietan gaia ugari izan zezaten. Baina antiojorik gabe irakurri duenak berehala ikusten du liburu hori ez dela elizgizonentzat egina, laikoentzat baizik, munduan bizi den jendearentzat" (Mitxelena 1981a, 272).

<sup>5</sup> "Nam ut C. Lucilius, homo doctus et perurbanus, dicere solebat, et, quae scriberet, neque ab indoctissimis se, neque ab doctissimis legi velle; quod alteri nihil intelligerent, alteri plus fortasse, quam ipse" (gurea da letrakera etzana). Ildo beretik joango zen beste hau ere: "Así no quise escribir lo que ni los indoctos podrian entender, ni los doctos procurarian saber [...]" (Ciceron: *Acad. quaest.*, I. lib., apud Granada, *Retórica*, 517b-518a or.).

gatzdunak esan ohi zuen ez zuela nahi berak idatzitakoak oso ezjakinek eta ez oso jakintsuek irakur zitzaten, zeren eta batzuk ez baitzuten ezer ulertzen, eta besteek berak idatzi baino gehiago ulertu nahi baitzuten”.

Honako hau, dena den, idazle eta predikari guztien ohiko kezka bilakatua zen ordurako erretorikaz kanpoko arrazoiak zirela medio, batik bat Trentokoaren ondotik etorritako urte ilun haietan. Axularren garaikidea zen Terrones del Cañok zioen bezala, predikariak ezjakinei bezainbeste bildur zieten jakintsuei:

Mira qué buen juicio el del vulgo, especialmente que tiene ojos de lince para ver las faltas y de topo para ver la excelencias del sermón [...] También se suele temer por otro extremo el auditorio lleno de sabios; porque no puede ir el sermón tan limado y peinado que no hallen que tachar (*Instrucción de Predicadores*, 38-39 or.)

Eta bazuen jakintsuei bildur izateko motiborik gure saratarrak. Izan ere, liburuak teoriaran izan zezakeen erdi-mailako irakurle goari begira sortzen eta moldatzen ziren testuei, tartekamarteka edozein sasi jakintsuren belarriak min zitzaketan anakronismo nabarmenegiak isurtzen baitzitzaizkien.

Horrezaz gainera, erdiko bidea aukeratzerakoan ba bide zen beste arrazoi bat ere, hizkuntzarena alegia. Pentsatzekoa da jakintsuek bazutela latina gauza sakon eta teologikoki garrantzitsuetara iristeko eta hizkuntza “vulgar” direlakoak beste zerbaiterako erabiltzen zirela. Ildo horretarik, adierazgarriak dira Granadakoaren hitzok: “[...] alguna personas graves que condenan los libros de buena doctrina, escritos en lengua vulgar para el uso de los que no aprendieron latin [...] razon tienen, si entienden que no se han de escribir en lengua vulgar ni cosas altas y oscuras[...]” (Granada, “Prólogo galeato”, *Guía*, 6).

Topos-a eta zuriketa ziurrenik, baina, guztiaren gainetik, errealitatearekiko egokitzapena.

a) Guztiarekine ere, eraikitzen ari garen irakurle “tipo” horren enparauko ezaugarriak testuan barrena aurkitutako honako nabardura hauen bitartez irudika litezke.

a) Irakurle estereotipatu horren alfabetatze maila irakurketa ariora mugatzen da. Axularrek zuzenean ezer esaten ez duen arren, espero dituen irakurle arruntek (“euskararik baizen etziakiten” horiek, alegia) ez bide dakite idazten<sup>6</sup>. Eta horren froga gisa edo, Granadaren testu batekiko paralelotasuna erakusten duen pasarte batek eskainiko liguke.

Granadak haragiaren bekatutik begiratzeko ematen duen aholkua garbia da eta bekatarien alfabetatze-mailarekin zerikusia du: “Huye también *los presentillos, visitasiones y cartas de mujeres*” (*Guía*, 131a; gureak dira hizki zeharrak). Axularrek, aldiz, bekatu horretatik begiratzeko erremedioen artean ez du “gutun”-ena aipatu ere egiten, ez bide du-eta bere irakurle euskaldunek idatzia- ren bitartez buru dezaketan arriskurik antzematen:

[...] behin abiatuz gero, adiskidetuz gero, trebatuz gero, eta elkharrekin solhasean, hitzketan, elheketan, *presentketan*, gosalketan, eta *bisitaketan hasiz gero*, peril handia da arimako, eta exenplo gaixtoa munduko (*Gero*, 404; gureak dira letra etzanak).

b) Alfabetatze graduaren arabera, kultur maila bera ere oso apala izango da irakurleen artean, punturik nabarmenena agian Axularrek erabiltzen ez dituen erreferentzia kulturaletan antzeman daitekeelarik. Alegia, garai hartan inguruko hizkuntzetako predikari eta idazle askok erabiltzen zituzten ereduak Axularren liburuan pertsonaia bibliko eta historikoenetara mugatzen dira oro har.

Izan ere, autoreak begien aurrean duen irakurle mota horrek bideratuko du liburuaren erreferentzia mundua, “interesatuki” pobre eta bestelako literatur errekurtsorik gabeko bihurtuz. Hori dela eta, nekez aurkituko da *Gero*-n mitikoak edota literario hutsak diren pertsonaia edo erreferentziak.

<sup>6</sup> Dirudienez, jende xehea gehienik ere doi-doi sinatzera -nahiz eta batzuk oinarritzko kontuak jakitera ere bai- hel zitekeen normalean.

Adibide paralelo soil batzuk baino ez jartzeagatik, Herreros-ek *Sermonario Clásico* izeneko libururako hautatu sermoiak ikus genitzake<sup>7</sup>. Bertan, eta *Gero*-n ere maiztxo ikusten diren Seneka, Platon, Marcial, Sokrates edota A. Gelio-ren ondoan, Penelope, Orestes, Pilades, Circe, Medea, Semeles, Júpiter, Saturno, Ganimedes, Príamo, Orfeo, Ceres, Baco, etab. azalduko dira aipatuak, hots, Axularrek inoiz libururatuko ez dituen jainkoak, mitoak<sup>8</sup> eta pertsonaia literarioak. *Gero*-ratzen direnak besteren aipamenetan tartekatuak ohi dira (Venus, Marte, etab.), eta beti azalpen argitzaileraren batez lagundurik.

Gabezia horren esplikazioaren atal bat erreferentzia horiek fede eta Elizaren egiekiko ekar zezaketen paganizazio-arriskuan datzan arren, ezin ahaz daiteke irakurleagoaren kultur maila eskasak berak hutsal bihur zezakeela erreferentzia horien presentzia, hutsal eta anabasarako gertuegi, inondik ere. Ildo horretan, XVII.ean mendebaldean arrunta zen "piramide" hitzaren beraren aurrean, Axularrek elementu ezezaguntzat jotzen du bere liburuan, eta, irakurleek ulertuko ez dutelakoan edo, haren deskribapena egin beharrean aurkitzen da (*Gero* 26 or.).

d) "Giristinotasuna" izango da irakurle tipoaren beste ezau-garri bat, baina ez edozein giristinotasun mota, irakurlea "le-

<sup>7</sup> Fr. Diego de la Vega (1602), Fr. Hernando de Santiago (1603), Fr. Diego Murillo (1604), Fr. Miguel Pérez de Heredia (1605), Fr. Pedro de Valderrama (1612), Fr. Angel Manrique (1613), Fr. Hortensio Félix Paravicino (1625) izeneko sermoiak.

<sup>8</sup> - Beraz, ez da gure artean Sánchez Romatek dioena aurkitzen: "Los siglos de oro redescubren totalmente la mitología y sus usos literarios, y los cuadros y los libros se plagan de referencias, «vulgarizándose» además la cultura mitológica gracias a la publicación de manuales mitográficos" (Sánchez Romate 1993, 456). Lan erlijiosoen izaeraren kariaz nagusiki, euskal autoreek ez dute mitologia klasikoaren isladarik erakusten, nahiz eta oso zinez pentsa daitekeen gure idazleek, formazioagatik zein (gutxiago, agian) irakurketen-gatik, ongi ezagutuko zituztela mitologia klasikoaren hari nagusiak. Izan ere, mitologia liburuak "figuraron, en los siglos XVI y XVII, en la biblioteca de todo hombre cultivado" (Seznec 1983, 260)

gure Catolica saindua" (6 or.) delakoaren eremuko giristinotzat hartuko du Axularrek, hots, katolikotzat. Inoiz besterik adierazi izan bada ere, egileak gogoan dituen irakurleak ez dira "eliçatic campoan" (8 or.) dabiltzan jendeak; are gutxiago, Materreren hitzez baliatuz (*Doctrina...*, 105 or.), "Paganoec, Hereticoec, Supersticiosec, eta guztiz-ere Sorguinec" osatzen duten multzoa, katolikoengandik hurbilen zeuden heretikoak, hau da, "Fedebat, leguebat, Eliçabat, eta Eliçaren buruçaguibat baten eztelaric (cein baita Erromaco Aita saindua) hec hura ukhaturic, fedea eta leguea bere ançu, bere borondatera eta libertatera behar ezten beçala" (Materre 1627, 108-109 or.) deklaratu dituztenek ez bide dute zerikusirik Axularren obraren irakurleagoarekin, ondoko lerroetan ikus daitekeen bezala:

Baldin iccus baceneça ecen guiçon batec, meça erraiteco Caliça aldaretic harturic hartan nori nahi den, agueri diren arlote, errumes eta bertce iende suerte guztiey emayten derauela cantoin guztietan edatera, cer othe ceneraque? Gutienean baceneraque hura dela *luthertasun bandia*, gauça itsusia eta eztaquiçula, cer gatzigu ordena halacoari (262 or.; gurea da letrakera etzana).

Horiek guztiak "guiristino gaixto Deabruaren parte seguitcen dutenac" (505 or.) lirarteke eta ez bide zuten inolako loturarik inoiz bekatutan eroriak zebiltzan giristino konbertigarriekin.

e) Gizonezkoa da nagusiki. Garai hartako hezkuntza eta gizarte-baloreak medio, Axularrek, orduko beste idazle askok bezala, baztertu egiten du emakumea bere liburuaren ohiko irakurleen artean<sup>9</sup>.

<sup>9</sup> Aski izan bitez Burkeren hitzak XVII. mendeko emakumeen prestakuntza mailaz ohartzeko: "Las mujeres tenían un grado de educación menor que el de los hombres. En 1630 en Amsterdam, el 32 por 100 de las esposas podían escribir su nombre, frente al 57 por 100 de sus maridos y en la totalidad de Francia, a finales del siglo XVII, la relación estaba entre un 14 y un 29 por 100, respectivamente. De este modo, *la palabra escrita debe añadirse a la lista de los elementos culturales no compartidos por las mujeres*, que comenzaron a suistituir a los hombres como guardianes de la tradición oral" (Burke 1991, 95; gurea da letrakera etzana).

Premisa moduko gizarte-planteamendu horrezaz aparte, anekdotikoaren mailan geldi daiteke, liburuan barrena zenbait bekatu tratatzean, Axularrek emakumeak irakurlegotik esplizituki baztertzea, besteak beste ez baiteritzo, antza denez, gertagarri emakumeak bekatu horietan ekimena eramateari. Edo, hobeto esanda, orokorrean ez badu kontutan hartzen emakumea ere izan daitekeela liburuaren irakurle, kapitulu konkretu horietan gizonari bakarrik zuzentzen zaio, bere gainean jartzen duelarik bekatu horien burutzapenerako ekimena. Ildo horretatik, ez dira gutxi aurki daitezkeen adibideak:

Emazte batequin beccatutan çaudenean [...] (371 or.).

Ethortcen da Iubilio bat, edo besta-buru bat, edo gariçuma: Eta hetaric batetan, iccussiric ecen bertcela galdua çoacilla, eguiten duçu urriquimendu handi batequin cofessione general bat, ceure mendean eguin ditutçun falta guztiez, harturic vorondate fin bat, ez guehiago emazte harengana, eta ez bertce halacotara bihurtceco. Eta handic harat hala complitcen duçu, etçara guehiago bihurtcen. Haur da erremedio ona, eta hartu behar den bidea, itsutua, eta beretacotua çadutçan, emaztearen utzteco (371 or.).

[...] baiña emazteac bere hitz leunaz, solhas garaciatsuz, eztiaz eta emeaz, beretacotuco, çaitu, centçutic atheraco, liluratuco eta bertce aldera itçulico çaitu (398 or.).

Eta beheraxeago, gauzak argi ez bazeuden, honako itzulpen edo moldaketa "bideratu" hau aurkeztuko du Axularrek Jondone Pauloren hitzez baliatuz:

Halatan erraiten du Iondone Pauloc. *Fugite fornicationem*. Ihes eguçue emaztëtaric, haraguiaren beccatutic [...] (398 or.).

f) Are gehiago, autoreak "hautatu" duen irakurlea adin konkretu batean dagoen gizona bide da oro har, hots, batik bat haragizko bekatuak "egiteko" gai den gizona. Eskuarki, gartzaroa utzi duen gizona eta zahartzarora oraindik iritsi ez dena. Horrezaz gainera, haragiaren bekatuarekin lotuta, za-

hartzaroa bekatuarekin gabe iritsi behar den aro bat bezala aurkeztu da liburuan.

g) Lanbidez ere, balirudike "lehorreko" irakurlea dela nagusitzen dena, nahiz eta bestelakoak ere eroso senti daitezkeen testuan. Horrezaz gain, zenbait momentutan ezkondua eta seme-alabak dituen eta maila ekonomiko altu samarrekoa da Axularrek buruan duen irakurle prototipo hori, eta ez bakarrik eman ditzakeen edota eman behar omen dituen erremusinenatik:

Ceure umea edo cerbitçaria, corrigitu, emendatu, eta centçatu nahi duçunean, anhitzetan ere cerori iartcen çara, cença beharrezago [...] non anhitz arnegu, eta iuramentu eguinic, azquenean, çure umearen, eta cerbitçariaren falta baiño, çurea handiago guerthatcen baita [...] (278 or.).

Sorna-izpi batekin, antzeko zerbait adierazten zuen Mitxelenak (1981a, 273) hamazazpigarren mendean burjes izan zitekeen neurrian, Axularrengan burjes izpiritua agertzen zela zioenean, eta burjesen artean zabaldu zela haren liburuaren baieztatzean.

Horri, gorago adierazi den bezala, irakurle izateko beharrezkoa zen liburuaren prezioa ordaintzeko ahalmen ekonomikoa erantsi behar zaio. Escarpiten hitzetan,

[...] el precio del libro en Europa occidental se mantuvo así a un nivel accesible para la burguesía acomodada, pero no para las clases medias y menos aún para los trabajadores (Escarpit 1968, 22).

h) Apaiza edo gizon erlijiosoak ere izan zitekeen liburuaren mezu-hartzailea<sup>10</sup>. Esate baterako, 34. kapituluan Axularrek irakurle tipo deitu dugun horri zuzenduko balitzazio bezala idaz-

<sup>10</sup> Lafittek Villasanteri aipatu omen zizkionak, esate baterako: "Axularren garaian Saran baziren 23 apaiz. Sobera, noski. Eta denak ez bide ziren «mutiko onak». Gero-ko zenbait irakaspen hoiei begira ez ote diren eginik galdetzen du berak" (Villasante 1972, 50).

ten badu ere, izatez zeharkako bidea hartu du "Eliçaguiçonari" (361 or.) zuzentzeko<sup>11</sup>:

Bada eritasun hunez [amodio kontuez ari da] cuntsatua guerthatcen den Eliça guiçona are da gaizquiago eta galduago. Peril da halacoac, ahaide probe guti ezconduco duen erremusinac bakhan eguinen dituen. Ceren amorantea eguinez guero, bere gogoa eta bihotza, haren baithan ibentcen baitu, eta bere onac ere harequin gastatcen eta hondatcen baititu (361 or.)

Hobeto ulertuko da zeharkako bidearen aitzakia beherago datozen hitzen argitan. Izan ere, berdin zaio konbertitu behar den irakurleari apaizek zer egiten duten. Hori bai, liburua teoriarik konbertsio beharrik ez duen elizgizonak irakurtzen badu, berehala ikusiko ditu berari zeharka zuzendutako hitzak:

Emaztetan eztabillan appeça, emaçu saindutçat: eta dabillana, hala dabillaiño emaçu galdutçat (362 or.)

Horretan oinarriturik, eta mezu-hartzaileak hiru motatakoak izan daitezkeela kontutan harturik, honako hau idatziko du Axularrek zuzenean inori zuzendu gabe:

Beraz hunelatan, principalqui Eliça guiçonac, eta presuna ezconduac, baiña guero beguira biteci bertce guztiac ere, haraguiaren lohian sartcetic, eta hidoizatcetic (362 or.).

Edozein gisaz, mezu-hartzaileak elizgizon ere bazirela dioen hipotesian areagotuz, bada Axularrek "Iracurtçailleari" idatzita-kon interesgarri deritzogun pasarte bat, irakurle arruntarekin zerikusi gutxi bide duena:

Hunetçaz content ez paçara, eguiçu çuc ceure moldera, eta çure herrian usatcen eta seguitcen den beçala. [...] haur da nic nahi nuqueyen gaucetaric bat, ene enseiu appur hunec quilica cinitçan eta guticia, bertce enseiu hobeago baten eguitera eta ene hemen-

<sup>11</sup> Fray Pablo de León-ek *Guía del Cielo* (1553) liburuan kritikatzan zuena ikusirik, ez dirudi elizgizonak ere salbuespen zirenik bekatu honetan: "A penas se verá la Iglesia catedral o colegial donde todos o la mayor parte no están amancebados" (apud Sainz Rodríguez 1927, 194).

go falten erre erremediatcera. Ceren halatan, ezliçateque euscara hain labur, escas, eta ez hertsi, nola munduac uste baitu, eta baitaduca, dela (19 or.).

Honen arabera, bi dira pasartean bereiz daitezkeen puntuak. Lehenengoa, zalantzarik gabe, espreski zuzentzen zaio gai "hunetçaz" dakienari, hots, elizgizonei zuzenean ("content ez paçara") eta ezinbestean (nork horretaz jakingo, bestela? nork horretaz aritzeko asmoa?).

Azken zatia, aldiz, modu zabalago batean interpreta liteke, euskararen urritasun hori konpontzen hasteko gonbitea idazten (eta zer idatzi ere bai) dakien edonorentzat delako hain zuzen. Nolanahi ere den, pasarte guztia datorren datorrenean hartuta, gonbiteak elizgizonentzat egina dirudi. Ondorioz, pentsatzekoa da "nahi nuqueyen [...] ene enseiu appur hunec quilica cinitçan eta guticia, bertce enseiu hobeago baten eguitera eta ene hemengo falten erre erremediatcera" esaldiak elizgizonak dituela litekeen irakurle modeloaren ikusmiran.

Honela, eta gora-behera batzuekin bada ere, Axularrek "Irakurtzaileari" atalean irudikatutako irakurlea izango da nagusiki liburuan isladatuko dena.

Jakina, testua irakurle arruntarentzat prestatu nahi izate horren ondorioa liburuaren planteamendu erretoriko orokorrean eta erabilitako baliabideetan antzemango da: liburua taxutzeko modua, irudi eta exenpluetan oinarritu eta haien bidez garatuko dena, oinarritzko argumentazio mota, edergarriak eta haien ezaugarri erritmiko-fonetikoak -ahozkotasunaren mundutik datorren irakurle landu gabeko batek ongien bereiz ditzakeenak, alegia-, etab.

Elementu horiek guztiak irakurlearekiko testu-egokitasun mailaz mintzatuko dira eta, aldi berean, obraren izaera zeharo erretorikoa utziko dute agerian.

## BIBLIOGRAFIA

- Axular, Guero, Bordele, 1643 (faksimila: Bilbo, Euskaltzaindia, 1988).
- Burke, Peter, 1991, *La cultura popular en la Europa moderna*, Madrid, Alianza Editorial.
- Chartier, R., 1993, *Libros, lecturas y lectores en la Edad Moderna*, Madrid, Alianza.
- Ciceron, *Obras completas*, I eta II, (itzulpena: M. Menéndez Pelayo, Madrid, Sucesores de Hernando, 1913 eta 1914).
- Cierbide, Ricardo, 1994, "Creación de la Senescalía de Saint-Palais 1639", *Iker* 8, 613-625.
- Granada, Luis de: *Guía de Pecadores*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, I, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE VI), 1944, 1-470.
- , *Retórica Eclesiástica o de la manera de predicar*, in *Obras del V.P.M. Fray Luis de Granada*, III, Madrid, Imprenta de la Publicidad (BAE XI), 1945, 488-642.
- Herrero García, Miguel (ed.), 1942, *Sermonario clásico. Con un ensayo sobre la oratoria sagrada española de los siglos XVI y XVII*, Madrid-Buenos Aires, Escelicer.
- Ibar (Mokoroa, Justo), 1935, *Genio y Lengua*, Tolosa, Mocoroa Hermanos.
- Materre, E., *Doctrina Christiana*, Bordele, Jaques Millanges, 1623.
- Mitxelena, K., 1981a, "Euskal Literaturaren bereizgarri orokorrak" in A.A.: *Euskal Linguistika eta Literatura: bide berriak*. Bilbo, Deustuko Unibertsitateko Argitarazioak.
- , 1981b, "Patxi Altunari erantzunez", *Euskera* XXVI-2, 617-626. (Orain B. Urgellen edizioan: Mitxelena, K., 1988, *Euskal Idazlan Guztiak IV*, Donostia, Elkar, 109-122).
- Ong, Walter J., 1987, *Oralidad y lenguaje. Tecnologías de la palabra*, Mexico, FCE.
- Sainz Rodríguez, P., 1927, *Introducción a la Hª de la Literatura mística en España*, Madrid, Ed. Voluntad.
- Seznec, J., 1983, *Los dioses de la Antigüedad en la Edad Media y el Renacimiento*, Madrid, Taurus.
- Soulet, J.F., 1974, *La vie quotidienne dans les Pyrénées dous l'ancien régime (du XVI au XVIII siècle)*, Paris, Librairie Hachette.
- Urgell, Blanka, 1991, "Axular eta Larramendi", *ASJU* XXV-3, 901-928.
- Villasante, L., 1972, *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, Ed. Franciscana Aranzazu, Oñati.
- , 1974, "Características de la obra *Gero*, de Pedro de Axular. Y puesto que a una tal obra corresponde en la Literatura euskaldun actual", *FLV* XVI, 29-38.

## TERMINOLOGIA KAZETARI ETA IRAGARLEEN MINTZAIRAN

## 1. Terminologien beharra kazetagintzan eta publizitatean

XX. mendearen amaieran eta behin unibertsitateek jakintzen adarkatzea eragindakoa, ezinbestekoa izan da terminologia espezializatuari erreparatzea eta lan terminologikoari ekitea. Gaur egun, Günter Haensch autoreak dioskun bezala (1997, 100), hiztegi kopururik handiena espezializatuak diren hitz eta termino bildumek osotzen dute. Zientzia eta teknologiaren esparrukoak baino ez direnak ezezik, filosofia, ehiza, gastronomia eta abarren hiztegiak ere sarriro ikus daitezke hizkuntza modernoetan. Askotan, nazioarteko erakundeen babesean argitaratzen diren bildumak dira.

Europako gutxiengoaren hizkuntza arduradunak sona handiko gertaera informatiboez balia daitezke egoera diglosikoan dau-den mintzairak hizkuntza garaikideen parean haz daitezten; eta langintza horretan hiztegi espezializatuak burutzea derrigorrezkoa da. Horrela, esaterako, Bartzelonako Joko Olinpikoen aitaziaz (1992) katalanek 29 hiztegi espezializatu plazaratu zituzten. Aukerak aprobetxatu beharra dago modernoak izateko irrika duten hizkuntzak garatzeko, zeren osterantzean argi baitago hemendik goiti horixe egiten ez dutenak bide erdian gertatuko direla. Pentsa dezagun gaur egun gizakiok darabiltzagun 6.500 hizkuntzetarik 300en batek iraun dezaketela XXI. mende-